

NORANTZA

Josu Waliño
Elhuyarrek Kidea

«Matematika ikasteko era erakargarri bat planteatu dugu»

Elhuyarrek 5 eta 8 urte bitarteko haurrek matematika ikas dezaten CD-ROM bat argitaratu du. Honako hau proiektu zabalago baten baitan kokatzen da, beste sei CD-ROMek osatuko baitute egitasmo osoa.

kloko matematika hartu du. Edukiak lantzean, bi irakaste aritu dira eta haiek erabaki dituzte programan jaso beharrek ariketa eta edukiak. Guztia, noski, ziklo horri dagokion curriculum aoinari harturik. Beraz, programan banaketak, kenketak, geometria pixka bat, zerotik mila bitarteko zenbakiak... jasotzen dira.

tan ez zaie haurrei oso erakargarria izaten. Horren aurrean, haurrei erakargarria egingo zaie eta gustura jolastera sartuko diren mundu bat sortu beharra zegoela pentsatu genuen. Piraten mundua inoiz modaz pasatzen ez den mundu bat dela pentsatzen dugu. Izan ere, mundu horrek beti dauka zerbait berezia eta lehengo haurrei, gaurkoei eta ondorengoei ere erakargarria zaien mundu bat dela pentsatzen dugu. Gainera, piraten bitartez, geografia pixka bat lantzeko aukera ere eskaintzen da, munduan zehar hainbat bidaia egiteko aukera agertuz.

AMAIA MUNDIANO

Matematika ikastea aspergarri samarra dela eta, Elhuyarrek Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutako CD-ROM bat kaleratu du. Josu Waliño egitasmoaren zuzendari tekniko da eta berak horren bitxikerien berri eman digu.

CD-ROMak zer-nolako edukiak bildu ditu?
Programak Lehen Hezkuntzako Lehenengo Zikloa...

Piratak dira programako pertsonaia nagusiak. Zergatik piratak?
Hasieratik zera genuen garbi: matematika bere horre-

CD-ROM hau egitasmo zabalago baten baitan kokatzen da.

Bai, halaxe da. Sei CD-ROMez osatutako proiektu baten baitan kokatzen da berau. Zentzu horretan ere, piraten gaia aukeratzek badu bere zergatia. Izan ere, proiektu osoak lotura bat izatea garrantzirikotzat jotzen genuen. Lotura hori mantentzeko piratena agortzen ez den gai bat dela erabaki genien. Bestalde, egitasmo hau aurre-aramateko garaian, bi arlo lantzea erabaki genuen: matematika eta hizkuntza, euskara. Gai bakoi-tzarekin hiru CD-ROM aterako ditugu. Honako hau lehen ziklokoa da, baina hurrengo bi zikloetarako ere aterako dugu. Eta hizkuntzarekin gauza bera. Zentzu horretan, gure asmoa datorren urterako beste bi CD-ROM ateratzea da eta hurrengorako besteak. Hau da, egitasmo zabal hau bi urteren buruan amaitzea espero dugu.



Karlos Cozibilla

Zein izan da egitasmo hartan jartzerakoan egin duzun hausnarketa?

Gauza jakina da gaur egun informatika eta multimedia bereziki etxetan gehien erabiltzen dutenak haurrak direla. Hori kontuan izanda, bi hutsune ikusten genituen. Batek, joko edota hezkuntza programarik ez dagoela euskaraz multimedia formatoan haurrentzat eta, bestetik, eskolako materiala betiko liburuetan oinarritzen dela. Bi elementu horietaz jabetuta, haurrei bestelako material bat eskaintzea ondo legokeela pentsatu genuen. Jokoak izateaz gain, edukatiboa izango zen CD-ROM bat haurrek gustukoagoa izango zutelakoan. Azken finean, matematika ikasteko era erakargarri bat planteatu dugu.

ZIRTOKA




Txillardegí

Horantza ote ?

Hauxe da askotan entzuten den galdera: oro har, horantza doa Euskal Herria? ala beherantza? Eta zail da erantzuten. Galdera era bikoitz honetara erantzun behar baita: horantza doa euskara? horantza al doa abertzaletasuna? Alegia, noruztuz doaz gure herriaren izana eta nahia? Zertan gauden galdetzek ere bere balioa du. Noski. Baina zertan gauden galdetzea baino adierazgarriagoa da zertaritzen ari garen. Gaur gauden egoera hau aurreko urte eta mendeetan mamitu baitzen. Alde batzutatik horantza ari garela gauza nabarmena da. Madrileren gorrotorearen maila hazkorrari da seinalerik seguruenak. Baina Katalunian, adibidez, urte hauetan finkatu dute betirako Kataluña katalana dela; eta katalana izateko katalanera dela ezinbesteko oinarria. Hemen ez. Aski da, adibidez, Autonomia betean, eta abertzaleak agintean egon omen garen urte eta eskualdeetan, mila orotarritan euskara ahazturik utzi dugun erdal harri eta burdin arrasto adierazgarria. Letreroena, alegia. Adierazgarri axala? Horra hor, horretaraz gero, prentsa erdaldu eta espainizale amorrutaren indarra. Eta gaur hori, instituzio asko eta asko «gure» eskutian dagoelarik. Hemen aurrera egin du gutxiengo batek. Zalantzarik gabe: bai. Baina Lizarrar-Garazi-ren gorabehera hitsek ongi erakusten dutenez, Espainia dugu nagusi oraindik. Bihotzetan, mihietan eta buruetan. Hauxe bai kezkarria. Geroa gure aurrean ari baita gauzatzen.

Aitzindariak



NAFARROAKO GORTEAK
1 Las grandes diferencias
entre Castilla y Francia
nas hacen temer por la
conservacion del Regno, pues
estamos puestos entre
dos tan grandes fuegos

NERE ESQUALDUN LAGUN ERROGINATUAK,
ZDIN GURE LEKUTAN ONGI MIN-HARTUAK,
FRANTZIAKO ARMADAZ GARE PENATUAK,
ETA ESPAINIAKOAZ ARRAS FINITUAK.

ANONIMOA XVIII.M.

1512 **Johan III**
ME OFENDE QUE ESTOS PRINCIPIES ME PIDAN COSAS INJUSTAS:
**PUEDO JUNTAR MUCHO MAYOR
NUMERO DE GENTE Y MEJOR,
QUE ESPAÑOLES Y FRANCESES,
Y ANTES LLEGARIA AL POSTRER
FRANCE, QUE OBLIGARME EN
VINCHIO INJUSTO. SEGUN-**

USKALDUNAK DIRA FRANTZIAREN
ETA ESPAINIAREN ARTIAN, ZAZPI
PROBINTZIA, HERRI TXIPI BAT:
KORAJEZ POPULU HANDI BAT, BERE
LEGIAK ETA LIBERTATE EDERRA
KUNTSORBI BEITUTIE BI MILA UR-
THEZ, ARMA BARDINEZ. FRANTZIA
KO ETA ESPAINIAKO NAZIOEN KRU-
DELE OROREN KUNTRE XAHO 1851